

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

09/10/21 | 309

🌀	Laster esne-makina eskualdean
🌀	Eraikin balioanitza Abaltzisketan
🌀	Bertsolari Txapelketa Nagusia hastear
🌀	Lizardi monumentutik Uzturreri bizkarra emanez
🌀	Hizkuntzak ikasteko arrazoiak
🌀	Irurako xare jokalaria mundialari begira



Iker Goenaga,
...arteraino
disco berriaz



berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeok, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: P° San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com



A P A I N D E G I A

Zure lehen zerbitzuarengatik
eskatu zure BEHERAPEN txartela!

NUTRIZIO AHOLKULARITZA

KOLEGIATU ZBK. 387



AMAIA ETXETXIPIA
BIOLOGA

KONDEKO ALDAPA, 5 B - 2° ESKUBIA. TOLOSA. TEL. 679 934 888

DIETA PERTSONALIZATUAK

OBESITATEA

NUTRIZIO BERREZIKETA

HELDUAK ETA HAURRAK



Mauka

42-58 neurriak

Errementari, 46-20400 Tolosa
telf. 943 675 289





Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
 Helbidea: Nafarroa etorbidea,
 6-behea.
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
 Telefonoa: 943 655 004
 Faxe: 943 654 983
 e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
 Webgunea: www.galtzaundi.com
 Koordinazioa: Leire Zubeldia.
 Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Gorka Otaegi,
 Amaia Goikoetxea Orbegozo.

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igar-tua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpuru, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Jone Gorostarzu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Angela Alamo
 Banatzaileak: Olatz,
 Juankar Arregi

Idazkaria: Edurne Mendia
 Maketazioa: Zigor Agirrezabala.
 Diseinua: Zigor Agirrezabala

Azala: Galtzaundi
 Inprimategia: Antza.
 Tirada: 5.000 ale
 Lege gordailua: 55-906/91
 Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria deon banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntz Politikarako Saibilburuordetza
diruz lagundutako argitalpena



Erreportaia:

Basagain, Burdin Aroari buruzko iturri agortezina

Badira 14 urte Xabier Peñalver arkeologoa eta bere lan taldea Basagainen indusketak egiten hasi zirela. Denbora honetan Basagainen egindako aurkikuntzei esker, aurrerapauso handiak eman dira Burdin Aroari buruzko ezagutzan. Arkeologoen iraila osoan jardun dute indusketa eremuan bilatzen, eta beste behin, bilaketa-lanak eman du fruitua. Burdin Aroari buruzko jakintza iturri amaigabea da Basagain. Hala ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak indusketa-lanak eteteko asmoa du.

8-11. orrialdeak

“Diskoko kantu askotan, badago distantzia eta badago denbora; nik uste dut diskoko bi protagonista garrantzitsu direla. Betiko galderak dira: Noiz arte? Noraino? Galdera horiek aspektu guztietan planteatzen ditut gainera.

Elkarrizketa: Iker Goenaga

16-18. orrialdeak

	Iritzien leihoa: Ibon Artola eta Juan Mari Beldarrain	4-5
	Normalizazioa: Kilometroak eta Nafarroa Oinez	6-7
	Eskualdeko albisteak: Laster esne-makina eskualdean	12-13
	Eskualdeko albisteak: Eraikin balioanitza Abaltzisketan	14
	Bertsolari Txapelketa Nagusia: Atarikoak	15
	Bidean: Lizardi monumentutik Uzturreri bizkarra emanez	19
	Kultura: Hizkuntzak ikasteko arrazoiak	20-21
	Kirol saltsa: Irurako xare jokalariek mundialari begira	22-23

Burgesia, faxismoa, errepresioa eta "gerra zikina"



Ibon Artola
Euskal Herria Sozialista-ko kidea

4 Pasa den mendeko 30. hamarkadako krisi ekonomikoan, 1929ko crackaren ondoren, hainbat lekutan burgesiak faxismoa erabili zuen krisiaren ondorioz altxatutako langile mugimendua suntsitzeko. Langile erakundeak ilegalizatu eta milaka langile erailtzeaz gain, herri zapalduen eskubideak are gehiago erreprimitu zituzten.

1936ko Frankoren altxamendu faxista ere kapitalistek eta lur jabe handiek antolatua izan zen. Altxamendu hura antolatu eta frankismoaren urte luzeetan diktadura babestu zuen burgesia espainiarrak jarraitzen du gaur egun ere botere ekonomiko eta politikoa izaten, estatu aparatua kontrolatzen eta lege-gintzaldi bakoitzeko gobernuak maneiatzen.

Baina guzti honetan zein leku du euskal burgesiak? Altxamendu faxista hasi zenean euskal kapitalisten alderdia den PNVk zein adierazpen egin zituen jakiteak asko esaten digu. Nafar Buru Batzarrak, Nafarroako

PNVren lehendakariak, hauxe esan zuen: "PNVk, bere ideologia katoliko eta foruzale sutsua dela eta, ez da elkartu eta ez da elkartuko Gobernuarekin (Errepublikarra) borroka honetan". Araba Buru Batzarrak berriz: "PNVren Arabako eskualdeko kontseiluak, anai arabarren arteko borroka fratrizidak eta odol isurketak saihesteko interesarekin (...) bere afiliatu guztiei (...) eratu berri diren autoritate militarren eta ordezkarien eskura jar daitezela eskatzen die".

Gorteetan ziren PNVko Javier Landaburuk eta Manuel Ibarrondok honako manifestu hau bultzatu zuten: "Espainiako

governazioa igarotzen ari zen baldintzak, hiritarren hondamendi moralera eta materialera zeramalarik, borondate oneko gizon batzuk, euren praiotismo sanoak bultzatuta, erregenerazio espiritual eta materialerako Gurutzada bat egitera bultzatu ditu.(...)ez dago dudarik, eta are gutxiago euskal nazionalista bantentzat, komunismoak emango ez liokeen eta herri honek lortu nahi duen askatasun minimoa nahi duenarentzat ... gure lagun nazionalistak bultzatzen ditugu halako altxor preziatua defendatuko duten horiei oztoporik ez jartzera(...) eta elkarrekin gora Espainia oihukatzen...".

Bizkaiko eta Gipuzkoako egoera berriz Bizkai Buru Batzarrak azaldu zuen: "erabaki bat hartzea aurreztuko zigun berri bat entzuteko itxaropena nuen, bando batek edo besteak irabazi izanarena...Gobernu errepublikarrari babesa ematea erabaki genuen (...) gogo handiegirik gabe (...) jakinda, beste bandoaren alde irteten baginen, gure militantzia aurka jarriko zitzaigula...". PNV hasieratik jarri zen faxisten alde Araban eta Nafarroan, eta Bizkaian eta Gipuzkoan berriz militantiarenganako beldurrak eta altxamenduaren aurka langile klaseak erakutsitako indarrak eraman zituen kontrako erabakia hartzera.

Gaur, kapitalisten bandoan egon ziren talde faxistek, tartean Falangea, Herriko tabernak, hildako errepublikarren oroimenak, Guardia Zibilak torturatu eta eraildako Joxi eta

Joxeanen oroitarriak, ezkerreko militanteak eta etorkinak ari dira erasotzen eta mehatxatzen. Euskal preso politikoek eskubideen aldeko mobilizazioen aurkako errepresio ankerra, Remi Ayestaranen heriotza eragin zuen Ertzaintzaren jazarpen basatia, Alain Berastegiren bahiketa eta tortura, Jon Anzaren desagerketa... eta, bitartean, talde faxistek inpunitate osoz jokatzen jarraitzen dute. Hau ez da kasualitatea. Erakunde faxistak ez dira lau eroz osatutako taldeak, burgesiak diruz lagundu eta euren interesak arriskuan jartzen dituztenen aurka erasotzera animatzen ditu. Burgesiak kontrolatzen duen estatu aparatuan ere jakina da afiliazio faxista duten pertsonak daudela, batez ere ejertzito espainiarrean eta kolore ezberdinetako indar polizialetan.

Poliziaren errepresioa eta talde faxisten erasoak bultzatuko ditu euskal burgesiak langileen aurka ere hauen borroka handitzen doazen heinean. Horregatik, hilabeteak desagertuta daramatzan Jon Anza non dagoen galdetzea langile klasearen erakunde eta sindikatuen lana ere bada. Kasu honek Joxi eta Joxeani gertatutakoa gogorarazten du, "gerra zikinaren" garaiak hain zuzen. Beharrezkoa da beraz langileen erakundeek ere talde faxisten inpunitatearen, Ertzaintzaren errepresio basatiaren eta euskal herritarren bahiketen aurka borroka egitea eta antolatzen diren ekintza eta mobilizazioei babesa ematea.

Poltsa (plastikozkoa) edo bizitza?

Urtetan defendatu dugu behin bakarrik erabiltzeko eta ondoren botatzeko produktuen erabilera murriztu beharra dagoela. Areago, hipermerkatuetan eta poltsak neurririk gabe banatzea espresuki kritikatu dugu behin baino gehiagotan. Beraz, kanpaina hau ondo iruditu beharko litzazuke; ekologiston tesiak gero eta gehiago onartzen diren sintomatizat ere jo genezakeen. Alabaina...

“Alabaina, zer? Honen kontra ere jo behar al duzue?” Ez, baina kate handiak dira, neurri handi batean, gaur egun indarrean dagoen kontsumo erudia ezarri dutenak. Eta orain, berriz, Al Gore ekologista “erradikala” ren plantak egiten al datoz? Gauzak horrela, kanpaina ikuspegi kritikoa minimo baten bahetik pasaratzea ezinbestekoa iruditu zaigu.

Kanpainaren mezuak bi zati ditu. Lehenengoan, zera dioskute: gutako bakoitzak urtero 280 poltsa inguru erabiltzen duela; poltsok desegin gabe 400 urte ere iraun dezaketela, eta, bien bitartean, espezie askotako arrain, hegazti eta ugaztunak hil ditzaketela. Eta hori guztia egia da. Dena dela, harrigarria ere bada kate handiak orain arte plastikozko poltsek sor dezaketen kalteaz konturatu ez izana. Baina, tira, esan bezala, kanpainaren mezuak badu bigarren zati bat, kontsumitzaileari zuzen-zuzenean dagokiona. Mezuaren bigarren zatia honela laburbil daiteke: “Aizak/n, izan hadi arduratsu, errafiazko poltsa erabili eta ez jarraitu ingurunea izorratzen”.

Eta, mezuaren lehenengo zatia ez bezala, bigarren hau zeharo faltsua da. Izan ere, ezin eutsizko kontsumoari mugak jartzea, funtsean, ez dago kontsumitzailearen esku, kate handien esku baizik, hau da, orain telesermoilari gisa agertzen zaizkigun horien esku. Kontuan izan behar da kateak izan direla, fabrikatzaileekin batean, gehiegizko bildukinen erabilera sustatu dutenak. Esaterako, haiek izan dira erabilera bat baino gehiagoko botilak baztertu dituztenak, desagertzearaino baztertu ere. Eta orain al datoz kontsumitzaileak plastikozko hondakinak murrizteko aukera baduela esaka? Ez, jaun-andreok, kontsumitzaileak behin bakarrik erabiltzeko eta botatzeko botila baino ezin du aukeratu, ez dagoelako besterik. Izan ere, horrexetarako asmatu zuten puntu berde delakoa. Horren bidez, kontsumitzaileak berak ordaintzen du erabilera bakarreko botila, eta kate handiek eta fabrikatzaileek, berriz, aurrezten dituzte botila zaharrak biltzeak, bolada batez gordetzeak, fabrikara garraiatzeak eta berriz erabiltzeko moduan jartzeak sortuko lituzketen gastuak.

Kate handiek zera dioskute: “Poltsei uko egiten badiezue, urtean 800/900 gramo plastikozko zabor gutxiago sortuko dituzue”. Baina, aldi berean, astero-astero, plastikozko ontzi itxuran, batzuek beste kilo eta erdi zabor saltzen digute. Halaber, hipermerkatuetako apaletan era guztietako plastikoko aurki daitezke... PE, PP, PS, PET, PE, AD, PE, BD... Are



Juan Mari Beldarrain
Eguzki taldeko kidea

Hipermerkatuetan eta plastikozko poltsak erretiratzen ari direla eta, produktu-banataile handi batzuek sekulako kanpaina mediatikoa sustatu dute. Poltson gehiegizko erabilerak planetaren bizitzari zenbat kalte egin diezaiokeen ikusarazi nahi omen diote kontsumitzaileari, eta horretarako nahiko telebista-iragarki apokaliptikoak ere prestatu dituzte.

gehiago, oso diru gutxiren truke, plastikozko zabor hori guztia zaborretara botatzeko plastikozko zabor-poltsak ere saltzen dizkigute.

Berrito esango dugu, badaezpada: poltsak erretiratzea edo murriztea ez zaigu gaizki iruditzen, are gehiago, bat gatoz; Baina fundamentuzko pauso gehiago eman ezean, propaganda hutsa da. Ez diezagutela poltsek basoa begi-bistatik ezkuta. Basoa geratzen den neurrian, behintzat; izan ere, igoal bota dute hipermerkatu bat eraikitzeke.

Kilometroak urriaren 4an ospatuko da Donostian. Nafarroa Oinez Etxarrin izango da urriaren 18an

Badatoz Gipuzkoa eta Nafarroak

Kilometroak 09

Datorren urriaren 4an ospatuko da Donostiako Zurriola ikastolan Kilometroak 2009 festa. Zurriola ikastola 2 urtetik 20 urtera bitarteko hezkuntza proiektu osoa da; Barandiaran lizeoarekin bat egin ondoren, Haur Hezkuntzan hasi eta Batxilergoa eta Goi Mailako Heziketa zikloak eskaintzen ditu. Guztira, 1.026 ikasle ditu 4 egoitzatan banatuta.

Haur Hezkuntzan izena ematen zuten haur guztiei lekua emateko.

2002ko udazkenean Zurriola ikastolak eta Barandiaran Lizeoak gogoeta-prozesu bat abiatu zuten elkarrekin, bakoitzaren egoera aztertu eta etorkizunera begirako urratsak lantzeko. Lan horren ondorioa izan zen bi ikastolon arteko proiektu komun bat diseinatzea, bakoitzaren premia eta beharrei tokia emateko.

Proiektuaren muina da bi ikastolek bat egitea, Barandiaran Lizeoaren zerbitzua Grosera ekarri eta eskaintza handituz eta sendotuz. Hauek dira proiektu berri honen helburuak:

1.- Ikastolen proiektua gizarteratzea.

Bi alderditatik begiratuta. Alde batetik, bi ikastolen artean landutako proiektu berria gizarteratzea, eta bestetik, Ikastolen mugimenduaren etengabeko lana gizarteraren aurrean aldarrikatzea. Ildo bikoitz horren harira, asmoa da Kilometroak jaia auzoetan

ospatzeaz gain, Donostiaren erdigunera ere zabaltzea.

2.- Proiektu berria finantzatzeko lagungarri izatea.

Bistan denez, proiektu berriak hezkuntza-komunitatearen lan handia ez ezik, aurrekontu ekonomiko handia ere badu berekin. Kilometroak festak zama hori arintzen, proiektuaren obrak finantzatzeko lagundu beharko luke.

3.- Hezkuntza-komunitate berria proiektu berrian inplikatzeko elkarlana sustatzea.

Bi ikastoletako hezkuntza-komunitateko kideak elkar gehiago ezagutzeko, ikastolako eguneroko jardunean parte hartzen ez duten hainbat eta hainbat guraso talde-lanetan inplikatzeko, horiengana ilusioa piztu eta hurrengo urteetarako oinarri soziala mobilizatzeko laguntzeko.

6



Zurriola ikastola eta Barandiaran Lizeoaren arteko harremana etengabea izan da.

Barandiaran Lizeoa 1974 sortu zuten Zurriola Ikastola, Orixe. Jakintza, Ikasbide eta Arantzazuko Amak, haietan eskaintzen zen ikasketei jarraipena eskaintzeko asmoz.

Denborarekin, Ikastola horietako bakoitzak, neurri batean edo bestean, handitu egin zuten euren eskaintza, eta horren ondorioz, Barandiaran Lizeoak berrantolatatu egin zuen bere eskaintza akademikoa, goragoko mailak eskainiz. Bazkide eta sortzaile ziren bost ikastola donostiarretatik lauk sare publikoan integratzea erabaki zuten 1993an. Geroztik dator Barandiaranen gainbehera.

Zurriola ikastolaren egoera sendoagoa zen. Azken urteotan erantzun ezinik zebilen

Nafarroa oinez 09

“Txikiak Handi” lelopean ospatuko da urriaren 18an Nafarroa Oinez festa Etxarri Aranatzko Andra Mari Ikastolan. Andra Mari ikastola izango zenaren proiektua 1969an hasi zen mamitzen. Bi guraso bultzatzaile zirela, eskola ordutegitik kanpo euskarara eskolak eskaintzen ziren Etxarriko Mojen ikastetxean. Horko haurrak izan ziren ikastolari hasiera eman ziotenak.



Urte horretan bertan Euskararen Aldeko Saileko kideekin hitz egin eta Udalarri lekua eskatu zioten; honek Eskola zaharretan zeuden gelak utzi zizkien. Lehen bi urteetan Al-

dundiaren babesa eduki zuen, baina haurrak hazi ahala OHoko etapari ekin behar izan ziotenean Eskolaritate kartilarik gabe aritu behar izan zuten. Sakana aldeko ikastolak bildu eta denen arteko kooperatiba sortzea erabaki zuten. Eskualde osorako ikastola berri bat egitea zuen kooperatiba honek xedea. 1981/82 ikasturtean jaso zituen Etxarriko ikastolak lehengo aldiz Eskolaritate kartilak. Sortu eta hogeitaz urteren buruan, eskolaurreko eta falta zitzairen OHoko zortzi geletako legeztapena etorri

o Ikastolen aldeko festak!

zen. Gaur egun Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapak eskaintzen ditu. Hauek dira festa honen bidez lortu nahi diren helburuak:

1.- Euskara eta euskal kultura sustatzea.

Nafarroa Oinez euskara eta euskal kulturaren aldarrikapenaren jai da. Nafarroa Oinez egun bateko jai baina askoz gehiago da: urte osoko jarduera bat da. Euskara kale-ateratzeko eta berpizteko balio du. Horrela izango da antolatutako hamaika kultur ekitaldien bidez.

2.- Ikastola berri bat eraikitzen laguntzeko dirua biltzea.

Eraikin berria ikastolaren etorkizuna bermatzeko behar da. Batetik, eraikin zaharra txiki eta zaharkitu gelditu da, egungo beharrei duintasunez erantzuteko. Bestetik, eskualdeko hezkuntza eskualdunaren eskariari behar bezala erantzuteko, Azkenik, kalitatezko irakaskuntzaren aldeko apustuari eusteko eta teknologia berrien garapenari bide eman ahal izateko, gela, kirol-gune, atsedean eta jolas gune eta instalakuntza berri eta egokiak behar dira.

3.- Hizkuntza txikien handitasuna aldarrikatzea.

Hizkuntza txikien aldarria egiten dute, ez bakarrik euskararena, baita inguruko hainbat hizkuntza gutxituena ere. ©

Urriren 18an Etxarrira joateko autobusa

Urtero bezala, Nafarroako Ikastolei bultzadaxo bat eman nahi die Galtzaundik, Nafarroa Oinez jaira joateko autobusa antolatuz. Autobusa 09:00etan irtengo da Tolosako Tren Geltokitik. Itzulera 19:00etan izango da. Bazkide ez direnek 11 euro ordaindu beharko dituzte. Bazkide direnek 9 euroren truke eskuratuko dute txartela. Autobusean izena emateko epea zabalik dago jada. Horretarako Galtzaundiren egoitzatik pasa beharko duzue. (Nafarroa Etorbidea, 6. behea. Tolosa). Informazio gehiago telefono honetan:

943 65 50 04

Kultur ekitaldiak



Urriak 15
Idoia Sanchez

Leaburu
17:00etan liburutegian
Gaztelu
18:30ean elkartean



Urriak 22
Idoia Sanchez

Irura
17:30ean liburutegian
Hernialde
Hernialden 18:30ean elkartean.



II. Ibarra Galtzakomik
Komiki Lehiaketa
Lanak aurkezteko epea azaroaren
10era arte hemen:

Galtzaundi Euskara Taldea
Nafarroa Etorbidea 6, behea
20400 Tolosa

Lehiaketaren oinarriak www.galtzaundi.com webgunean



Baserriko produktu naturalak
Mahala baserria • LEABURU
Tel.: 943 673 499



Osagaiak
Desarrolloak
Instalakuntzak

BUDARI KALEA 15-BEHEA TEL.: 943 650 199
TOLOSA (BIPUZKOA) FAXA: 943 653 916



INDUSTRIARAKO
HONIDURAK

Iparragirre auzoa, 1-behea
20400 Tolosa
Tel.: 943 673 726 • Faxa: 943 673 462



Mertzeria eta
konponketak

Zumalakarregi etorbidea, 7
TOLOSA



Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

Azken urteetako indusketetan aurkikuntza garrantzitsu ugari egin dira
Basagaingo Burdin Aroko herrixkan

Basagain

Burdin Arotik gero eta gertuago

Leire Zubeldia

Basagain Anoetako lurretan dago. Ernio eta Buruntzaldearen behatoki paregabea den muinoaren azpian, duela 2.000 urteko herrixka baten aztarnak daude. Badira 14 urte Xabier Peñalver arkeologoa eta bere lan taldea indusketak egiten hasi zirela. Denbora honetan Basagainen egindako aurkikuntzei esker, aurrerapauso handiak eman dira Burdin Aroari buruzko ezagutzan. Arkeologoek iraila osoan jardun dute indusketa eremuan bilatzen, eta beste behin, bilaketa-lanak eman du fruitua. Burdin Aroari buruzko jakintza iturri amagabea da Basagain. Hala ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak indusketa-lanak eteteko asmoa du.



Euskal Herriaren hego-
mendebaldean hemen
baino aurrerratuago
daude garai honen gai-
neko jakintzan Aurrera-
pausoak eman behar
ditugu. Uste dut bide
onetik goazela, uste
dut gertuago gaudela.

Ateaga baserri armarriduna igaro, mendi pista batetik bosoan murgildu, eta honen irteeran eskubitara hartu dugu, malda piko bat igotzeko. Ran Rover bat ikusi dugu aldaparen erdian; lurrean sortutako lokatzak eraginda ez aurrera ez atzera geratu da. Arkeologoen materiala garraiatzeko erabiltzen dute autoa. Basagaindik gertu egon behar dugu. Ez nahi ordurako, baina iritsi gara muinora. Han topatu ditugu arkeologo gazteak, sonbrilen azpian, belauniko, induskariak eskuetan dituztela, norbere metro karratuan kontzentratu. Kristo aurreko lehen milurtekora bidaiatzea bezalakoak izan da. Segituan etorri da Xabier Peñalver indusketaren zuzendaria gu agurtzera. "Izan zineten lehenagotik hemen?"; galdetu digu. Ezetz esan digu; eta berak leku ederra dela, merezi duela ezagutzea. Zinez merezi ere. Alde batean Ernio mendilerro osoa ikusten da. Beste aldean, Buruntza mendia bistaratu daiteke.

Baina paisaia ez da Basagainek gordetzen duen altxorrik garrantzitsuena. Bertako belar hezeak Burdin Aroko herrixka bat ezkututzen du. Arkeologoen 2,8 hektareako eremua

babesten zuen harresiaren zatia bistaratu dituzte. Harresi honen kontra eraikitzen zituzten etxebizitzak; hain zuzen ere, etxeak zeuden leku honetan ari dira indusketak egiten. "Lan geldoa da, kontu handiarekin egin beharrekoa", azaldu digu Peñalverrek. 14 urte daramatzate Basagain herrixkan lanean. Urtero, irailean bertaratzen dira ikerketan aurrera egiteko aztarna berrien bila. "Duela 25 urte ez genikien ezer Euskal Herriko Burdin Aroari buruz. Are gehiago, bere existentzia ukatu egiten zen". Gero, Xabier bera aritu zen Aldaba Zaharretik gora dagoen Intxur mendiko herrixkan. Orain, Basagainen ari dira burubelarri. "Urte guzti hauetan egindako lanarekin, Burdin Aroari buruzko datu ugari jakin ditugu, baina oraindik ere gauza asko dauzkagu ezagutzeko. Euskal Herriko hego-mendebaldean gu baino aurrerratuago daude ezagutza mailari dagokionez". Kristo aurreko lehen milurtekoari buruzko jakintzan aurrera egiteko iturri garrantzitsua izan



Basagainen aurkitutako beira zatiak. Marsellan dute jatorria.

Xabier Peñalver, Basagaingo indusketaren zuzendaria.

10

da Basagain. Bertan egindako aurkikuntzek, Burdin Aroari buruz zeuden uste faltsuak gainditzeko balio izan dute.

Nekazaritza, metalurgia eta merkataritza

Burdin Aroan, Euskal Herriko Kantauri isurialdean jendea bizi zen. Duela urte batzuk, pentsatzen zen, herritar hauen jarduerak bakarrik artzaintza zela. Oria ibarreko herrixketan egindako aurkikuntzek uste hori balio gabetu egin dute. "Abeltzainak ez ezik, nekazariak ere baziren. Lurra lantzen zuten zerealak, lekadunak eta bestelako produktuak jasotzeko". Horren frogak dira Basagainen aurkitutako goldea, eta aleak xehetzeko errotxoa. Animalia hezurak ere aurkitu dituzte, (ardia, txerria eta behia) animaliak etxekotzen zituzten seinale.

Burdin Aroko beste ohiko elementua zeramika da. Material honekin ontziak egiten zituzten lehengaiak gordetzeko. "Burdin

din Aroaren lehen erdian eskuz lantzen zuten zeramika; bigarren erdian berriz, zeramika-tornoa egiten zuten. Hau da Basagainen aurkitu dugun erredua. Ontzi dotoreagoak eta sendoagoak egiten ziren teknika honekin, txikienetatik hasi eta handienetaraino". Ebro azpiko zein Kantauri isurialdeko Burdin Aroko herrixka ugari ere teknika hau erabiltzen zuten. Horregatik Basagainen ere beratu erabili izana ez da harrizkoa. Peñalbarren hitzetan, harrigarriagoa da burdin eta brontze zerpa (zaborra) aurkitu izana. "Honek esan nahi du, burdina eta brontzea herrixkan bertan ekoizten zutela. Oso aurreratuak zeuden". Etxebizitzaren egiturak egiteko grapak, iltzeak... Nekazaritzarako tresnak ere egiten zituzten.

Merkataritza zen Burdin Aroko gizartearen beste jarduerak bat. Elkarrengandik gertu zeuden herrixken artean ez ezik, distantzia luzean ere mugitzen ziren. Esaterako, Frantziako Mediterraneoarekin merkataritza-harremanak zituzten. Hain zuzen ere, Basagainen aurkitutako pieza batekin frogatu dute hori.

Marsellan egindako besokoa

Duela urte gutxi, beirazko besoko urdin baten zatia agertu zen Basagainen. Bere jatorria aztertzen ibili dira, eta ia erabat ziur daude, Marsellan egin dagoela. "Honekin ondoz ondoz frogatu dezakegu, ekin-

Ez dakigu Basagainen zein erabilera ematen zieten estela hauei. Egoera interesgarri baten aurrean gaude.

tza komertziala bazegoela Basagainen, eta ez bakarrik gertuko herrixken artean, urruneko herriekin ere hartu-eman komertzialak zituzten, gainera, aparteko objektuak, balio handikoak mugitzen zituzten". Besoko honen harira, beste ondorio bat ere ateratu dute Peñalver eta bere taldeak. "Beti uste izan da, Kantauri isurialdera Ebrotik barrena etortzen zirela. Baina besoko hau ez da Ebrotik etorri, Frantziako Akitaniatik barrena, Pirineoak zeharkatuz ekarri zuten. Bide hau zen hemengo herrixkak Europa erdialdearekin eta Mediterraneo frantsesarekin lotzen zituen komunikabidea". Hipotesi hori sendotzeko beste datu bat ere eman du arkeologoak. Ebro azpiko herrixketan ez da horrelako besokorik aurkitu. Basagaingoarekin batera, Gironako probintzian atzeman da beste besoko bat. Beraz, hau ere Pirineoetatik gertu.


Estela, eta beirazko kaikua

Iraila osoa eman du Xabier Peñalver-en taldeak Basagainen egon zitezkeen arrastoak bila. Bilaketak bere fruitua eman du. Bi elementu garrantzitsu aurkitu dituzte. Horieta bat da etxebizitzak zeuden lekuan aurkitutako estela. "Iaz bat aurkitu genuen, eta aurreko besteak. Lerro paralelo eta perpendikularrak dituzte





Indusketak etete- ko zorian

Basagain, Burdin Aroari buruzko infomazio iturri agortezina da. Azken urteetan egindako aurkikuntza garrantzitsuak ikusi besterik ez dira egin behar. Aldiz, horrelako une erabakiorrean Gipuzkoako Foru Aldundiak Basagaingo indusketa bertan behera utzi nahi du. Xabier Peñalverren ustez akats handia da hori. "Aurkikuntza hauei esker Burdin Aroz gauza asko jakin ditugu, baina oraindik askoz ere datu gehiago eta zehatzagoak jakin ditzazkegu. Euskal Herriaren hego-mendebaldean hemen baino aurreratuago daude garai honen gaineko jakintzan. Aurrera-pausoak eman behar ditugu. Uste dut bide onetik goazela, uste dut gertuago gaudela". Gipuzkoako Foru Aldundiko kultur ondarearen arduraduna Basagainera bisitan joatekoa da. Beraiek izango dute azkeneko hitza. Peñalverrek ez du esperantza galdu nahi. "Begi-bistakoa da indusketek jarraitu egin behar dutela. Ea horretaz jabetzen diren". Hala bada, datorren urteko irailean itzuliko dira berriro ere arkeologoak Basagainera. 


marraztuta. Hauek nekropolietan, hildakoen hobi gainean (Burdin Aroan hildakoak erre egiten zituzten) agertu izan dira. Basagainen aurkitu ditugunak berriz etxebizitza baten barruan agertu dira, logelaren testuinguruan. Hori da harrigarriena". Aurkikuntza honek beste ikerketa bide bat zabaldu du: "Ez dakigu Basagainen zein erabilera ematen zieten estela hauei. Argi dagoena da, ez zutela funtzio praktikorik. Egoera interesgarri baten aurrean gaude".

Horrenbeste aurkikuntza egiten ari zirela ikusita, aldizkaria inprentaratu aurreko egunean Xabier Peñalverekin harremanetan jarri zen osteran Galtzaundi, aurkikuntza gehiago egin ote zituzten jakiteko. Telefonoz eman zigun berria: "Beirazko kaiku bat aurkitu dugu gaur bertan. Urdina da. Honek ere, besokoak bezala Marsellan du jatorria". Irailaren 25ean jakinarazi zuen azken aurkikuntza hau egin zutela. Irailaren 30era arte jarraitu zuten indusketek. Agian, aurkikuntza gehiago daude.

ZETA^S_I

MUNTAKETA ELEKTRIKOAK

Usabal z/g - 23. postakutxa
20400 TOLOSA
Tel.: 943 672 728
Faxa: 943 673 219



kutxa

11

euskararen
semaforoa
euskararensemaforoa
.blogspot.com



Gozotegia

Okindegia

ECEIZA

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916



Esne-makinaren ideia ondo dagoen arren, esne bila baserrira joateko ohitura bultzatu behar dela uste du Andoni Egiak

“Eskualdean ere laster jarriko

Via Campesina-k Europa osoko esne-ekoizleak grebara deitu ditu sektoreak bizi duen egoera salatu eta irtenbide bat exijitzeko. Greban dauden abeltzainak milaka litro esne sorora botatzen ari dira esne industria erraldoiak ia muxutruk hornitu ordez. Mobilizatzeaz gain, hainbat esne eskoizlek hirietan esne-makinak jarritz eman nahi die buelta egoera larriari. Euskal Herrian ere jarri dira lehenengo esne-makinak; Elizondon aurrena, eta Ordizian gero. Andoni Egi esne ekoizlea eta EHNE sindikatuko Tolosaldeko koordinatzailea da. Berak azaldu duenez, Tolosan ere laster jarriko da esne-makina.

Erredakzioa



Orendainen duen ukuiluan topatu du Galtzaundik Andoni Egia. Goizean -goizeko lanak amaituta, tartetxo bat hartu du gurekin hitz egiteko. “Jaten emateaz gain, egunean bi aldiz jetzi behar dira behiak; goizean eta gauean”, azaldu du. Andonirentzat ez da lan gogorra, aurrerapen teknologikoek abantaila handiak ekarri baituzte ukuiluetara. Gogorra ez, baina lan lotua da. Lan honetan ez dago soldata finkorik, ez dago

ordaindutako oporrik, ezta zortzi orduko jardunaldirik ere. “Ez gara sartzen ditugun orduak zenbatzen hasten, bestela... Nik gurasoen laguntza daukat, eta asteburuetan langile bat etortzen da. Horrela moldatu behar izaten dut”, jarraitu du. Baldintza gogor hauek zailtzen dute belaunaldi gazteagoek baserriari jarraipena emate. “Gu txikitatik ibili gara ukuiluan. Kanpoan ere lan egin nuen, baina hark ez ninduen betetzen. Gehiago gustatzen zitzaidan ukuiluko lana”.

Esne ekoizle guztiek bezala, Andonik egoera larria bizi du. 80 behi dituzte. Hauek 2.500 litro inguru ematen dituzte egunean. Esne biltzailea bi egunez behin joaten da ukuilura. Bidaia bakoitzean 5.000 litro eramaten ditu. “Esne litroa 28 zentimo ordaintzen dizkigute. Esne kopuru hori ekoizten ematen digutena baino diru gehiago joaten zaigu”. Lehen 30 bururekin egiten zuten lan. Baina ukuilu zaharra txiki geratu zitzaizen eta handiago bat eraikitzea erabaki zuten. “Administrazioak ustiakuntza handiak jartzera bultzatzen zaitu. Gero, gu ere horrelakoak gara: uste dugu gero eta ukuilu handiagoa orduan eta gehiago irabazten dela. Gaurko egoerak ordea ondo erakusten du handia ez dela soluzioa. Inbertsio handia egin genuen, eta orain, egoerari buelta emateaz gain, lehen egindako zuloak estali behar ditugu”.

Irtenbide baten zain

EHNE sindikatuak Via Campesinak Europa osoan deitutako esne-ekoizleen greba babestu du. Ipar Euskal Herrian mobilizazioak egiten ari diren bitartean, Egiak hoztuta ikusten ditu hegoaldeko esne-ekoizleak. “Hemen egin diren mobilizazioek ez dute emaitzarik eman eta jendea etsita dagoela iruditzen zait. Zain egotea beste irtenbiderik ez dute ikusten”. Itxaropenerako zirrikitu handirik ez du uzten orendaindarrak. “Arazoa ez da konponduko, ez etorkizun hurbil batean behintzat, ez baita go borondaterik”. Horregatik zerbait egitearen alde agertu da. “Pertsonalki grebaren alde nago. Ez dakit ekoiztako esnea sorora botatzeko gai izango nintzatekeen. Hori oso gogorra egingo litzaidake. Baina argi dagoena da, egoerari buelta emateko mugitu egin beharra daukagula”.

Esne-makinak, soluzioa?

Esne industria erraldoiek jarritako prezio barregarriari izkin egiteko, salmenta-zuzenaren bidea hartu dute esne-ekoizle askok. “Baserritarrarentzat erosoena kamioia bertaraino etorri eta esnea eramatea da. Baina esnea jatetxeetara, gozotegietara, tabernetara, dendetara... banatzea badago”, dio Egiak. Askok ez dute horretarako aukerarik ordea, salmenta zuzenak lana suposatzen baitu, eta baliteke langile bat hartu beharra izatea zerbitzu hori bete ahal izateko.

da esne-makina”




Esneak beste bide batzuk ere baditu ordea, eta Andoniren ustez horiek ez ditugu ikusten. “Esneak gauza askotarako balio du: Jogurtak, gaztak... egin eta saldu daitezke”.

Aipatutakoez gain, bada azken bolada honetan modan jarri den esnea merkaturatzeko beste era bat: Esne-makina-rena. Italian sortu zuten ideia, euskaldunek baliatu dute jada. Elizondon eta Ordizian bana jarri dituzte, eta Tolosaldean ere badira makina horietako bat jartzeko asmoa lantzen ari diren ekoizleak. “Zenbait bilera egin ditugu esne-makina jartzeko eskatzen dituzten baldintzak aztertzen joateko. Jendeak interes handia erakutsi du, eta ziurtatu dezaket, eskualdean laster izango dugula horrelako makina bat”. Makina kalean jarri baino lehen, ekoizleak paper mordoa sinatu eta osasun sailak eskatutako baldintzak betetzeko moldaketak

egin beharko ditu ukuiluan; beste gauza batzuen artean, esnea pasteurizatzeko azpiegitura jartzea exijitzen baitute. Azken baldintza honek, inbertsio bat egitera behartzen du baserritarra.

Andoni Egiari ideia ona iruditzen zaio esne-makina jartzearena. Hala ere, egokiago ikusten du ustiakuntza txikiengat, buru asko dituzten ukuiluentzat baino. Esnerik ekoizten ez den herrietan, makinak egunero esne freskoa eskuratzeko aukera ematen die kontsumitzaileei. Behiak dauden herrietan ordea, ez du makina jartzeko beharrik ikusten: “Lehen jendea baserrira etortzen zen marmita hartuta esne bila. Orain berriz, inor ez da etortzen baserrira esnea, arrautzak edo barazkiak erostera. Zergatik ez da ohitura hori bultzatzen?”. Baserrira bertaratzeak edango duzun esne hori non eta nola ekoizten den ikusteko aukera

ematen du. Baina ekoizle orendaindarraren hitzetan, jendeak ez dio jaten eta edaten duenari baliorik ematen. “Egungo gizarterearen gaitza da hori: supermerkatu erraldoi batean jaki merkeenekin beteko dugu saskia; galtzak erosi behar ditugunean ordea dendako garestienak aukeratzten ditugu”.

Orendain kas-kora iritsi baino lehen, errepide ondoan du Egiak ukuilua. Marmita hartuta bertaratzeko gonbita egin du Galtzaundiren bitartez. Inondik inora, honen ez du sektoreak bizi duen egoera latzari irtenbidea emateko balio, baina jendeak kalitatezko produktuak baloratzen ikasiko luke. 





Errepidea eta frontoiaren arteko altuera baliatuz eraikin balioanitza egingo dute Abaltzisketan

Eraikin balioanitza Txindokiri begira

Abaltzisketako Udalak hiru txori hilko ditu tiro batez. Amezketatik datorren errepidea eta frontoiaren artean dagoen altuera baliatuz, gimnasioa, auditorioa eta enpresa batentzako lokala bilduko dituen eraikina egingo dute. Gipuzkoako Foru Aldundiak bideratzen duen Landa Gipuzkoa 32 programaren bitartez finantzatuko den lehenengo proiektua izango da hau.

Erredakzioa

Abaltzisketan aspaldiko urteetan ez da horrelako proiekturik egin. Herrian dauden behar ugari asetuko ditu Txindokiri begira egingo duten eraikin balioanitzak. Ilusio handiarekin daude herritarrak eta bertako udal agintariak eraikitze lanak noiz hasiko zain. Jesus Mari Gorostidi Abaltzisketako alkateak aurreratu duenez, azaroan hasiko dira lanak, eta urte beteren buruan amaitzea espero dute.

Hiru txori tiro batez

Leku handirik hartu gabe, errepide bazterrean geratzen den lur eremua eta frontoiaren mailaraino luzatzen den horma baliatuz egingo dute eraikina. Hiru solairu izango ditu.

Beheko solairuan, (errepidearen mailan dagoena) gimnasioa egingo dute, bere aldagela eta dutxekin. "Herriko gazteek ez daukate kirola egiteko leku egokirik. Eskolako gaztetxoentzat ere ondo etorriko da", aipa-

tu du alkateak. Solairu berean auditorioa ere egingo da. "Hitzaldiak, kontzertuak eta bes-telako ekintzak egiteko lekua izango da hau. Gainera txindokiri begira egingo da, eta horrek xarma emango dio".

Lehenengo solairua (erdikoa) enpresa baten egoitza izango da. Bere jabetza lehiaketa bidez emango da. "Abaltzisketako udalaren gainean Logika Line enpresaren egoitza dago. Txiki geratu zaie eta esan ziguten leku handiagoa behar zutela. Guk ez dugu enpresa herritik joaterik nahi, bertan herritar ugari egiten baitu lan, eta herrarentzat ere ona da enpresa bat edukitzea. Horregatik, proiektu hau beraientzat ere oso ona da". Lokalaren esleipena egiteko lehiaketa publikoa deituko du Udalak, eta Logika Linek bertara aurkeztu beharko du.


Azkenik, bigarren solairua frontoiaren mailan geratuko da. Hor daude parkea, eliza eta plaza. Eraikinaren sapaia gune honi metro gehiago emando dizkio. "Agenda 21ean gaur

egungo parkea handitzeko eskatu ziguten. Eraikinaren sapaia irabazten ditugun metro karratuak baliatuko ditugu horretarako".

Bestalde, herrian falta diren komun publikoak ere bertan egingo dizute. Eraikineren sarrera parkearen ondoan egingo diren eskaileretatik egokituko dute. Igogailu bat ere izango du. Eta frontoia eraikin berriarekin komunikatuta egongo da. Abaltzisketan egun dauden eraikinekin alderatuta, honek beste itxura bat du. Alkateak "moderno" dela dio. Herritarrei asko gustatu zaie.

999.343 euroko aurrekontua

Abaltzisketako Udalak bakarrik ezingo luke gastu hau beregain hartu. Horregatik alkateak biziki eskertu du Foru Aldundiak eta Jaurlaritzak emandako diru-laguntza. Landa Gipuzkoa 32 diru-laguntza programak 600.000 euro eman ditu. Jaurlaritzak, Erein programaren bidez beste 299.000 euro. Falta dena Abaltzisketako Udalak ordainduko du.





Urriaren 3an hasi eta abenduren 13ra bitarte txapelketaren trenak ez du etenik izango

Bertsoaren errusiar mendia abiatzear

Igotz Alkorta

Errusiar mendia. Irudi hori hautatu du bertsozale elkar-teak 2009ko txapelketa nagusia irudikatzen. Saio batean senti daitezkeen emozioak adierazten dituen irudia. Ziur, aurtengoan ere sentituko ditugunak. Osagaiak behintzat ez dira falta.

44 bertsolari

44 bertsolari sailkatu dira 2009ko txapelketa nagusirako. Aurreko finalistek pasea ziurtatua zuten, gainontzekoek probintzietako txapelketan lortu dute txartel preziatua. Aurtengoan eskualdetik ordezkari bakarra izango dugu: Aitor Mendiluze. Duela lau urte, Bixente Gorostidi ere lehian izan genuen, baina oraingoan txapelketaren atarian geratu da.

Urriaren 3an hasiko da lehia lehen final laurdenekin. Guztira 36 bertsolari izango dira final laurdenetan, zazpi saiotan banatuta. Lehen saioa Zestoan izango da hilaren hiruan eta fase honetako azkena Laudion egingo da 24an. Final erdientara 17 onenak igaroko dira. Han izango dituzte zain azken txapelketako zazpi finalistak, Aitor Mendiluze tartean. Final

erdietan beraz, 24 bertsolari izango dira, hasieran behintzat. Izan ere, aurreko aldaketa txiki bat egin dute. Final erdietan, bi saiotan kantatuko du bertsolari bakoitzak, puntu gutxien jasozten dituzten sei bertsolariek izan ezik. Horrela, lehen itzulian lau saio izango dira eta bigarren itzulian hiru.

Tolosako saioa

Final erdietako lehen itzuliko saio horietako bat izango da Tolosakoa, Azaroaren 14an. Bertan ziur izango direnak Igor Elortza eta Sustrai Colina dira, beste lau bertsolariak sailkapenak erabakiko ditu. Gipuzkoako azken txapelketan bezala, Usabal kiroldegian izango da saioa.

Behin finalerdietako bi itzuliak amaituta, zazpi onenak sailkatuko dira final handira, eta BECen txapeladuna, Andoni Egaña izango dute zain. Informazio gehiago, eta sarrerak edo txapelketa osorako bonoak eskuratzeko aukera www.txapelketanagusia.eu atarian duzue. Galtzaundin ere, aldizkari oro jasoko duzue txapelketaren inguruko informazio zabala. On egin deizuela, on egin deigula!

Iritsi da. Bertsozale asko eta asko zain ziren unea heldu da. 44 bertsolari, hamarna epaile eta gai jartzaile, hamaika antolatzaile eta milaka entzule. Guztiak igoko dira bertsoaren errusiar mendira. Jira eta bira, gora eta behe-
ra, Zestoatik BEC-era. Eta tartean Tolosan, pare pareko aukera.



Noiz arte? Noraino? Iker Goenaga trikitilari eta musikari zizurkildarrak galdera unibertsal horiek egin ditu bere disko berrian. Erantzuna ere eman die: ...arteraino. Soinu-txikiak eta berak egindako bidean laugarren lana du hau, eta autoekoitzitako lehenengoa. Berak sortutako **Ez dakienak baleki** zigilupean plazaratu du. Hori da aurreko diskoekin alderatuz azken honek dakarren aldaketarik nabarmenena. Egun bizileku duen Alkizako plazan elkartu da Galztaundi berarekin.

...arteraino 4. lana kalean da. Esaten da azkena izten dela beti onena...

Onena den ez dakit. Azken egun hauetan jendeak esan dit Soinugorri-rekin geratzen dela. Beste gauza bat da, kantu hauengandik gertuago sentitzen naizela duela zazpi urte egin nituenetatik baino. Finen, azken hiru urte hauetan bizi izan dudana errealitateak bultzatu nau kantu hauek egitera. Arrazoi honengatik disko honetako kantuekin identifikatuago sentitzen naiz.

Noraino da "...arteraino"?

Aurretik eten puntuak jarri badizkiot mugagabe uzteagatik izan da. Diskoko kantu askotan, badago distantzia eta badago denbora; nik uste dut diskoko bi protagonista garrantzitsu direla. Betiko galderak dira: Noiz arte? Noraino?

Galdera horiek aspektu guztietan planteatzen ditut gainera. Egia da, diskoaren azalean jarri dudana irudiarekin galdera horiek nire ibilbide musikarekin pertsonalizatu egin nahi izan ditudala.

"Umea eta mapa", "Urteak", "Al-datu nahian geroa"... Disko berriko kantuen izenburuak dira. Denborarekin kezkatuta?

Nik idatzi ditudan letretan agertzen da kezka hori, baina inkoszientea izan da. Badago "Egunoro" izeneko kantu bat. Duela bost urte egin nuen maitasun kantu bat da, eta seguruenik gaur egun ez naizela letra horretan esaten dudarekin identifikatzen. Baina konturatzen naiz momentu hartan horrela bizi izan nuela. Beste kantu batzuk kasualitatez landu dute gai hori. Koldo Izagirreraren



Iker Goenaga

«Distantzia eta denbora protagonista garrantzitsuak dira diskoan»

Leire Zubeldia

“Egunero dugu bezpera” letra aurkitu nuen. Mezu horrekin ados nagoela uste dut. Hau da: Helburuak ez du irabaztea izan behar, baizik eta horren alde borrokatzea. Beti da bezpera, eta igual inoiz ez da nahi duzun egun hori iritsiko. Azaleko irudiarekin azaldu nahi izan dudana ere hortik doa: Jarri dut bide bat, amaitzen ez dena; motorra, tresna bat garamatzana; eta soinua eta ni goaz bidea egiten. Noraino? Ez dakit. Noiz arte? Ez dakit.

Zer nabarmenduko zenuke disko berri honetatik?

Hasteko, garbi dago kantuak sortzen dituen zein den. Niretzat hori oso garrantzitsua da. Kantuak sortzeko nire modua soinu-tresna da. Nik ezin dut sortu kotxean noala burura melodia bat etortzen zaidalako. Sortzeko nire soinu-tresna gainean eduki behar dut. Uste dut, honek nire kantuak baldintzatu egiten dituela.

Bestetik, Amorrua diskoko elektronika kutsu hori alde batera utzi dugu. Pentsatu genuen, kontzertuetan akustikoa-go entzun behar zela. Tronpeta, txeloa eta beste instrumentu batzuk sartu ditugu, baina gu bost musikari gara. Zuzenekoetara ahalik eta gehien gerturatu dadin saiatu gara, eta baita instrumentuen soinu erreala bilatzen ere. Musika-tresna bakoitzaren soinua aprobetxatzea jo dugu.

Hauetaz gain, aldaketa garrantzitsua izan da zigiluarena, autoekoizpenarena.

“Ez dakienak baleki” zigilua da sortu duzuna. Zergatik jo duzu autoekoizpenera?

Musikaren mundua dagoen bezala dago, eta zenbait disketxe irauteko arazoak dituzte. Hala ere, orain arte nire diskoak kaleratu dituen argitaletxeak, Elkar-ek, eskaintza bat egin zidan. Beste zenbait musikariri diskoa eurekin plazaratzea ukatu zietela ikusita, alde batetik pentsatu nuen: “ez dago batere gaizki”. Baina bestetik, nire eskaintza bera egin zieten musikari batzuei, eta hauek diskoa euren aldetik ateratzea erabaki zuten.

Egoera honetan zalantza asko eduki nituen: Alde batetik, argitaletxe batekin lan egiteak ziurtasun handia ematen du, batez ere promozioari begira. Baina beste aldetik, beraiekin diskoa kaleratzeak kostu handiagoa suposatzen zidan, gestio lana ordaindu egin behar baituzu. Diru hori aurrezteko, gestio lana nik egitea erabaki nuen.

Apostu honek duen arriskua, promozioa egiteko garaian dena nik egin behar dudala da. Komunikabideek erantzungo zuten edo ez beldurra nuen. Azkenean, Ez dakienak baleki zigiluaren izena hortik dator. Suposatzen zen disko bat egiten banekiela. Kantuak sortu, diskoa grabatu, elkarrizketak eman... Orain, gestio lanak egiten ikasi behar izan dut. Horregatik diot Ez dakienak baleki.

laz hil zen Mikel Errazkin musikariari ere eskaini diozu kantua...

Ez Mikeli bakarrik. Antxoko Poturgal kantua, iaz joan zitzaigun Xabier Portugali eskaini diot. Pasaiako alkatea izan zen, Lizeo Ikastolan batera egiten genuen lan, Gara eta Eginen aritu zen zine kritikari bezala, Donostiako Jazzaldiaren anto-

latzailea ere bazen... Mikel irailaren 5ean hil zen, eta Xabier irailaren 1ean. Guk irailaren erdi aldera hasi behar genuen entsaiatzen Santo Tomas inguruan estudiora sartzeko. Gogorra izan zen: Egun gutxi batzuetan bi lagun joan zitzaizkidan. Egun haietan bi kantu egin nituen eta diskoan sartzearabaki genuen.

Amorrua diskoa plazaratzean aipatu zenuen zuena talde proiektu bat dela.

Bai. Musikaren panorama dagoen moduan talde finko bat mantentzea zaila da. Nik ordea zorte hori daukat. Diskoaren liburuxkan galdera bat egiten

da, nik, sortzen dudana taldeki-deengana ematen dudala.

Koldo Izagirrek esaten du, musikarion lana gogorragoa dela, estenatoki gainera igo eta publikoaren aurrean aurpegia eman behar dugulako. Eta egia izan liteke: Idazleek hitzaldiren bat edo beste eskaini dezakete, baina publikoarekin ez dute harreman hori; musikariek bai. Une horretan taldearen babesa sentitzen dut.

Nonbait irakurri dizugu soinuaz aspertzeko beldurra duzula...

Nik uste dut hori normala dela. Boladak izaten dira. Nik, nire soinu-tresna gehien bat sortzeko hartzen dut. Lajak be-



“Kantuak sortzeko nire soinu tresnak gainean eduki behar dut”.

diet taldekideei: Zer nintzateke ni zuek gabe? Neronek erantzuten dut galdera: Ikara eta hotza. Egia da beraien babesa ezin bestekoa dela.

Idazle lagun batzuk badituz, eta haiekin asko identifikatzen naiz, batez ere sorkuntza garaian. Kantuak sortzea bakardadean egiten dudana gauza bat da. Idazleak ni baino goizago jaikiko dira ordenagailu aurrean jartzeko, baina bakarrik egiten dute baita ere. Beste diferentzia

eriz, egunero lau orduz entsaiatzen du. Disziplina ezberdinak dira. Soinua betirako lagun izatea nahi dut. Aspertu egin naizela eta, ez dut 43 urterekin utzi nahi.

Lau disko daramatzazu bizkarrean. Ibilian-ibilian badirudi ildo musikal bat bilatu duzula. Bide hori nahita hartu duzu, edo era inkoszientearen izan da?

Atera egiten da. Kantuak dauzkadalako egiten dituz



“Soinua betirako lagun izatea nahi dut. Aspertu egin naizela eta, ez dut 43 urterekin utzi nahi”.

koak, ez alderantziz. Musika talde askotan egon naiz, eta alderantzizko prozesu hori ezagutu dut: Aurten diskoa atera behar dugu, eta benga, denak kantuak sortzera! Nire buruan ez da hori sartzen.

Gauzak modu inkoszientean egiten ditut. Disko bat grabatzea erabakitzen dudanean ez dut hausnarketarik egiten, disko horrek nolakoa izan behar duen edota zein joerarekin apurtu behar duen jakiteko. Ateratzen zaidan bezala egiten ditut gauzak. Egiten dudan hori originala bada hobe, baina hori ez dut nik aukeratzen.

Azken hiru diskoen argitaratze datan hiru urteko tartea dago. Hori da disko bat kaleratzeko behar duzun denbora tarte naturala?

Hori ere kasualitatea izan da. ...arteraino diskoko kantuak aspaldi zeuden eginda. Estudioan sartu behar duzu, zuzenekoak eman, promozioa egin... Disko

bat kaleratzeko gauza horiek guztiak egin behar dira, eta norberak indartsu eta gogotsu egon behar du. Nik kantu sorta bat daukadanean, eta momentu egokia dela iruditzen zaidanean, taldekideei deitzen diet eta hasi egiten gara. Horrela izaten da prozesua.

Azken disko honen kasuan, ia garai honetarako kalean egon zitekeen inongo arazorik gabe. Autoekoizpena dela eta ez dela, erabaki batzuk hartu behar izan ditut eta horrek atzeratu egin du prozesua. Dena den, martxorako eskuan genuen diskoa, eta azkenean, irailera arte atzeratu genuen kaleratze data.

Autoekoizpenaren bidea jarraituko duzu aurrerantzean ere?

Jendeak esaten du okerrena lehenengo diskoa dela. Esperientziak erakutsi egiten dizu. Horrek ez du esan nahi ordea, gestio lanak egitea plazer bat denik. Niri ez zait batere gusta-

tzen, baina egin beharra dago. Diskoak berak ere zein ibilbide egiten duen ikusi beharko da. Kontutan hartu behar da baita ere, oso eroso aritu garela grabatzen. Gure taldeko perkusio-joleak, Iñigok, estudio bat dauka Hernanin eta bertan grabatu dugu. Berak egin ditu tekniko lanak, baita nahasketa eta masterizazioa ere. Horrek asko balio du. Nik uste dut baietz: Dena ondo ateratzen bada, hurrengo diskoa ere autoekoiztia izango da.

Euskal musikaren panorama gero eta anitzagoa da. Zein leku du hor trikitixak?

Badirudi trikitilariak gainontzeko musikariengandik aparte gaudela, bakarrik sentitzen garela. Nire soinu-tresna soinu txikia da bai, baina ni musikaria naiz, eta musikariekin harremana daukat.

Bestetik, egia da erromeri giroko diskoak direla saltzen direnak. Bestelako trikitixa diskorik

ez da saltzen, eta apustuak ere ez dira egiten. Joseba Tapiak bere bakarkako apustuak egiten ditu; Kepa Junkerak berriz, beste era bateko bidea landu du; eta gero, ni nago baita ere erromeria girotik aldentzen direnen zaku horretan. Garai batean asko ziren Laja edo Kulpelak egiten duten erromeri giro horretatik aparte zeuden taldeak. Pixkanaka desagertzen ari dira ordea.


...arteraino diskoa erronka bat izan al da zuretzat?

Kantuak sortzeko modua betikoa izan da eta taldekideak ere bai. Ohiko kolaboratzaileak ere aldamenean izan ditut: Koldo Izagirren letrak daude, Mikel Markezek, Alaitzek eta Gartxot Unsainek kantatu dute... Alde horretatik berdina izan da dena. Horrek segurtasuna eman dit.

Zerbait ezberdintzekotan moldaketen kontua dago hor. Amorrutan Anjel Unzurekin batera aritu nintzen moldaketak egiten. Azken diskoan nik hartu dut ardura hori. Dena nik egin dut: Partiturak idatzi ditut, biolentxeloak zer jo behar zuen nik esan dut, gitarrarekin ere berdin... Norbaitek gidaritza hartzea komeni zen, nahiz eta gero, bakoitzak bere ekarpenak egin. Ardura horrek kezka sortu dit. Adibidez, hori erronka bat izan da niretzat.

Sortzen jarraitzen duzu?

Bai. Dagoeneko bost kantu baditut eginak. Orain gainera, sortzen dudanean ez dut soilik soinuarentzat sortzen; kantu horretan gitarrak, perkusioak, baxuak eta beste instrumentuek jo beharrekoa ere idazten dut. ...arteraino diskoarekin izan dudana esperientziak eta Amorrutan Anjelekin ikasi nuenak bultzatu nau horretara.



Bidean

Lizardi monumentutik Uzturreri bizkarra emanez



Iosu Iztueta
Bidaiaria

Tolosaldeko mendi ezagunenak ziurrenik Txindoki, Ernio eta Uzturre dira. Dena den, urtean zehar jende gehien igotzen den mendia Uzturre izango da. Badira Tolosan, Donostian Kontxan egunero bainatzen direnen antzera egun batean bai eta bestean ere bai Uzturrera igotzen direnak.

Tolosako zulotik begiratuta beti azaltzen da Uzturre tente eta dotore. Tolosaldeko beste herrietatik aldiz guztiz ezberdina ikusten dute mendi hau, askotan kosta egiten zaio jendeari ezagutzea; bere perfila etzana agertzen du Uzturrek eta gurutzeta ez dauka tontorrean. Engainatu egiten gaitu tolosarron mendi "sakratuak"... Trukean, han goiko balkoitik, ikusmira paregabea eskaintzen du.

Bestaldera begiratuko dugu gaurkoan, Tolosako kaletik Urkizu aldera, han mendi magalean, belardi, soro eta basoz inguratuta baserri trilogia dago, guk Mutitegi deitu izan diogu beti, baina hiru dira. Hara iristeko San Esteban auzotik, tren geltoki atzetik hartuko dugu, Torre baserri ondotik hainbat lasterbide daude errepide asfaltoa saihesteko eta mozteko, arrasto zuri-horiei jarraituko diegu hiru baserrietaraino.

Mutitegi baserriaren goiko aldetik goazela mandiopaso altu baten azpitik igaroko gara eta go-

runtz hartu orduko LIZARDI dioen egurrezko gezi txiki bat topatuko dugu. Berezko gurdibidea zenari norbaitek hesia jarri dio, ondoko pinudiko xendatik 50 metro egin eta aintzinako bidera itzuliko da. Aldapa gora goazela aspaldian eroritako enbor baten azpitik pasatuko gara, gutxira, basotik atera eta bidegurutzean berriro marra zuri-horiak eta gezia. Segi lasai bide markatuari, honaino tarteka hanka azpian kriski-kraska zoazela somatuko duzu; sartu berri garen udazkeneko fruituak zapalduz etorriko zara: urrak, intxaurrak, pago ezkurak... Ah! eta tarteka bare bigunak, beltzak eta gorriak, orbel gaineko freskurara aterata.

Laster gara Lizardiren monumentuan, Jose Mari Agirre, goitizenez Xabier Lizardi, Zarautzen jaioa zen eta 10 urterekin Tolosara etorri zen bizitzera bere familiarekin. Batez ere olerkigintzagatik izan zen ezaguna baina kultura, politika eta beste zenbait arlotan lan eskeraga egindakoa da

zarauztarra. Askotan igotzen zen Tolosatik hona Lizardi, gustuko lekua zuen nonbait.

Dama iturrira bideak zeharka goxo-goxo egiten du, eskuin aldera Lizardi elkarteko lagunek jarritako dozena erdi bat poema aurkituko ditugu beste hainbeste hesoletan josita; ezkerrean, duela gutxi arte zegoen pinudia botata bista errekararen bestalderaino iristen da, ziurrenik ahuntz talde bat ere ikusiko duzu larrean. Hara joateko, egurrezko zubitxo bat gurutzatu, hesia pasa eta trenbide trabiesaz egindako hiru mahai eta eserlekuak topatuko ditugu iturri ondoan. Erreka zulo aldera doan bidea beheantze jarraituz gero Olarrain auzora aterako ginateteke. Neuk beste langa bat ireki eta aurrera segitu dut, Munitaberri baserriaraino doan pistatik, bideak azken kilometroan (monumentutik hona) 350 metroko altueran jarraitzen du eta eroso da, hara iritsi aurretik iturri txiki bat topatu dugu ondoan egurrezko eserleku bat duela, Agus-

tin Iraola, Bandrestarrek (Antxon, Marijo, Jose, Kristian) eta beste batzuen artean egin zuten pixk-naka. Urtetan beraiek garbitu izan dute auzolanean Lizardi monumentura bitarteko bide osoa.

Ordubate pasatxo Tolosatik hona, atsedean hartzeko iturriak eta monumentua dira leku onenak. Donostiako Zinemaldian alfonbra gorria kendu berri dute; udazken sasoiko alfonbra horia zain daukazu Lizardi monumentuaren inguruan.



Lehen, orain eta beti, ingelesa da gehien ikasten den hizkuntza

Zein da hizkuntza bat ikasteko arrazoi nagusia?

Galdera honekin joan da Galtzaundi Tolosako H.E.O-ra (Hizkuntza Eskola Ofiziala) eta Elduainen Hizkuntza Eskolara. Lehenengoak bere bigarren ikasturtea hasi du. Elduainenentzat 41. ikasturtea izango da aurtengoa. Biak hala biak gero eta eleanitzagoa den gizarte honen adibide dira.



Paper Eskolaren 3. solairuan du egoitza Tolosako Hizkuntza Eskola Ofizialak. Ikasgelak egokitzen ari dira: altzariak jartzen; arbel elektronikoaren nondik norakoak ikasten... Berru usaina du denak. Normala, soilik urte bat daramatzate bertan. Vitoria Hernandez zuzendaria gustura agertu da lehenengo kurtsoak eman dituen fruituekin: "Irakasleentzat zaila izan da zerotik hasi behar izan baikenuen. Onena, zalantzarik gabe ikasleagoa izan da. Oso harrera ona egin digute: Asistentzia %90ekoa izan da. Azterketara ere ikasle %90a agertu da. Oso portzentaia al-

tuak dira horiek. Ikasleak gustura egon diren seinale". Lehenengo utea zenez, Tolosako Hizkuntza Eskolak, ingelesa eta frantsesaren oinarrizko maila bakarrik eskaini ditu. 330 ikasle inguru izan dituzte. Bigarren ikasturte honetan eskaintza zabaldu eta erdiko maila egiteko aukera egongo da. Iaz baino 150 matrikula gehiago egin dira. "Urtez urte, maila gehiago eskaintzen joango gara, eta hizkuntza aukera ere zabalduko dugu. Orain ondo gaude lekuz, baina laster toki gehiagoren faltan geratuko gara", ohartarazi du zuzendaria. 2009-2010 ikasturtean arratsaldean emango

dituzte eskolak, baina 2010-2011 ikasturtean goizez ere eskainiko dituzte. Orduan hasi nahi dute Ingelesa eta Frantsesa ez ezik Alemana ere ematen.

Hizkuntzen irakaskuntzan 4 hamarkada daramatzen arren, Elduaien Hizkuntza Eskolak ere badu berri usaina. Rondilla kalean egoitza berria estreinatuta dute. Kondeko Aldapan, Nafarroa Etorbidean eta Berazubín ere lokalak dituzte. Eskola Jose Mari Elduaienek sortu zuen duela 40 urte. Egun bertan lan egiten duten irakasle asko bere ikasle ohiak dira. Hori da Magda Pelaez idazkaria eta Cristina Dominguez ikasketa buruaren kasua. "Jose Mari hasi zenean, soilik Ingelesa ematen zuen. Gaur egun, ingelesa, frantsesa, alemana, italiarra, txinera eta errusiera ematen dira Tolosan", azaldu dute. Donostian dituzten beste egoitza batzutan hizkuntza eskaintza zabalagoa egiten dute: Grekoa, japoniera... Akademiara etortzen diren ikasleei ez ezik, enpresetan ere ikastaroak eskaintzen dituzte.

Ingelesa, lehen orain eta beti

Elduainen duela 40 urte lanean hasi zirenean, ingelesa zen gehien ikasten zen hizkuntza. Egun ere horrela izaten jarraitzen du. Hizkuntza Eskola Ofizialean ere gauza bera aipatu

dute. "Harrigarria egiten zaigu, hezkuntza arautuan horrenbeste urtez ingelesa ikasten egon ondoren, hona etorri eta berriro ere ingelesa aukeratzea. Gainera, gehienek oinarrizko mailatik hasi nahi izaten dute".

Ingelesaren ostean, frantsesa eta alemana dira gehien eskatzen diren hizkuntzak. Urteetan hala izan dela adierazi du El-duaiengo Cristina Dominguezek. Txinera da mantentzen den beste hizkuntza. "Duela lau urte inguru modan egon zen. Jende askok eman zuen izena. Orain ere badaude taldeak". Errusiera eta italiarren kasua bestelakoa da: "Horrelako hizkuntza minorizatuak ikasten dituztenak, hizkuntza hori hitz egiten duten herrialdera joan behar dutelako izaten da. Normalean, enpresak eta pertsona partikularrak izaten dira eskatzaileak".

Zergatik hizkuntza ikasi?

Galdera honen erantzunean ez dira bat etorri HEO eta El-duaien Hizkuntza Eskola. HEOko Victoriak esan du hizkuntzak komunikatzeko helburu soilarekin ikasten direla. "Batez ere bidaiaitzeko prestatu nahi dutelako etortzen dira. Esate baterako, nik frantsesa irakasten dut. Nire ikasle asko neguan Frantzia aldeko Pirineoetara joaten dira

eskiatzera, eta han moldatu ahal izateko eman dute izena ikastaroan". Hala ere, Victoriak ez du ukatu lan kontuek ere eragina dutenik hizkuntza bat ikasteko erabakian. "Baina gehiengoaren helburua ez da titulu bat ateratzea. Horrek presiorik gabe lan egiteko aukera ematen dizu. Ikasleak gusturago etortzen dira eskoletara, eta giroa ere hobea izaten da".

Elduainen argi eta garbi esan dute: "Jendeak ingeleseko titulua eskuratu nahi du. Gainera, gehiengoak unibertsitatera joan baino lehenago atera nahi izaten dute". Komunikatzeko helburua bigarren maila batean geratzen da euren ustez. "Txinera ikasten duenak berriz zerbait ezberdina ikasi nahi dutelako aukeraten du. Eta Italiara, Errusiera eta horrelakoak, lan kontuengatik aukeraten dira, eta gehienetan enpresetatik bideratzen dira ikastaroak".

H.E.O.-ean matrikulatu ahal izateko 16 urte izan behar dira. Elduaien Hizkuntza Eskolak gazteagoak ere onartzen ditu. Baina orokorrean, gazteak, helduak, jubilatuenak... Adin guztietako jendea animatzen da hizkuntzak ikastera. Arrazoi batengatik edo bestearengatik, Tolosa eta Tolosaldeko jendea gero eta eleaniztago da.



Korreoa, 39
Tel.: 943 671 414

20400 TOLOSA
Gipuzkoa



Paper manipulaziorako
makina eraikuntza

Konponketa
eta mantenimenduak

Apatta industrialdea.
Baratzondo D 26. Ibarra
Tel.: 943 671 590.
Faxa: 943 673 916



ARTE
TAILERRA

HAURRAK ETA HELDUAK

Sormen lana: marrazketa,
margoak, eskultura.

Tolosa-kale Nagusia, 16 - Telf. 677 340 685

ZABALA
DESGUAZEAK

KUDEATZAILE BAIMENDUAK
EU2/111/04



BEOTIBAR INDUSTRIALDEA, 18 - BELAUNTZA
TEL/FAXA: 943 671 790 -
MUGIKORRA: 696 593 347

Argentinako Gualeguay hirian urriaren 12tik 18ra jokatu da 22 urtez azpikoen trinketeko mundiala

Xarea

Irurako xare jokalaria 22 urtez azpikoen mundialera

Egunak zenbatzen ari dira Ugaitz Mendizabal, Asier Gutierrez eta Unai Sarasola irurarrak. Urriaren 12an ekingo diote euren lehenengo Xare mundialari. Horretarako Argentinaraino bidaiatu beharko dute, eta bertan, munduko onenen aurka lehiatuko dira. Herriko trinketean ikasi dutena munduari erakusteko asmoz doaz. Garaipen gosez daude.

Leire Zubeldia

Gogor ari dira entrenatzen Mendizabal, Gutierrez eta Sarasola. Entrenamendu saio batean Irurako trinketera gerturatu da Galtzaundi xare jokalariekin hitz egiteko. Argentinara bidaitzeko gogotsu daude. 10 urterkin hasi ziren xarean, eta hau izango da euren lehenengo mundu mailako txapelketa. "Gaztetxoak ginenean, denak parte hartzen genuen xare eskolan. Urteen poderioz, jendea xarea utzi eta futbolera joaten zen. Gure adinekoen artean gu hirurok jarraitu dugu", azaldu dute. Beraz, ondo merezitako saria da, 22 urtez azpikoen mundialean parte hartzeko txartela.

Gaur egun ere, Iruran bada xare eskola. Txikienek herrian

horrenbeste tradizio duen pilota jokoa ikasteko grina badute beraz. Baina lehen gertatzen zena gertatzen da gaur ere. "Eskolak ondo funtzionatzen du. Ume mordoak ematen du izena. Arazoa da, gaztetxoei ezin dieguala eutsi. Gehienez, 15 urtera arte egoten dira". Xare jokalariek ulertzen dute gaztetxoek joera hau. Izan ere, Irurakoa da inguru hauetan dagoen trinkete bakarra. "Gertuen dagoen beste trinketea Iruñeakoa da. Txapelketa gutxi izaten dira, eta jokatzen diren gutxi horietan parte hartzeko urrun joan behar duzu. Udalak ere ez digu laguntza handirik ematen".

Denboraldi laburra, baina berezia

Iraila amaieran hasten da xare denboraldia Euskal Herriko Txapelketarekin. Euskadiko Txapelketa eta Espainiakoa jokatu ondoren, abenduan amaitzen da. "Besterik ez dago. Euskal Herrian zein Estatuan oso xare jokalaria gutxi daude. Esaterako, gu gara Estatuko jubenil bakarrak. Horregatik, aipatutako txapelketa hauetan helduen aurka jokatzen dugu".

Aurtengo denboraldiak ere hiru hilabete eskas iraungo ditu. Baina ez da besteak bezalakoa izango. Irurako gazteak 22 urtez azpikoen mundialean izango dira. "Ilusio handiarekin begiratzen diogu Argentinako bidaiari. Horrenbeste denbo-





ran xarean aritu ondoren, gure lehenengo mundiala izango da". Ugaitz, Asier eta Unairekin, Ipar Euskal Herriko jokalaririk bat joango da. Binaka jokatuko dituzte partiduak. Bikote titular bat eta ordezkotako bat osatuko dute, txandaka jokatzeko.

Aurkari oso gogorak izango dituzte. Bereziki Frantziarren maila azpimarratu dute: "Frantzia trinketez beteta dago. Oso ondo jokatzen dute, Profesionalak dira". Kuba eta Argentinako selekzioak ere aipatu dituzte. Hauk ere lanak emango dizkie irurarrei. Zailtasunak zailtasun, argi dute zein den euren helburua: "Finalera iritsi nahi dugu". Mundiala irabaztea ere aipatu dute aho txikiarekin.

Urriaren hasierara arte eman daitezke izena. Ikastaroa urriaren 7an hasiko da.

Irurako nesken pilota eskolan izena emateko epea zabalik

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak, Irurako udalarekin lankidetzan, martxan jarriko du berriro ere Irurako Nesken Pilota Eskola.

10-16 urte bitarteko neskei zuzenduriko eskaintza da honako hau, eta neskek batez ere paletan arituko dira. Iaz zortzi bat neska aritu ziren eta benetan gustura amaitu zuten ikasturtea. 2004tik abian den Emakumea Pilotari proiektuaren baitan kokatzen da jarduerak hau ere, eskola kirolaren atalean, hain justu.

Izena emateko ikastetxean banatuko diren eskuorriak bete behar dira. Ondoren, betetako orria eskola kiroleko koordinatzaileari eman besterik ez da egin behar. Informazio gehiago nahi duenak, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioari dei dezake: 943471463

Ikastaroaren ezaugarriak:

- Hasiera data: Urriak 7
- Lekua: Irurako pilotalekua
- Iraupena: Urriatik ekainera
- Kuota: 90 euro. (Irurarrek gutxiago)

ANTZA

Beti Nahi
galesteru

Garaian garaiko janariak eta arraikieta bereziak

Tel.: 943 671 920
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Foruak, 5-bis • TOLOSA
Tel.: 943 652 712

Beatriz
Dekorazioa
Donostia - Tolosa

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak
(bat erositako beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

Donostia
San Martin, 16
943 425 886-943 420 187

Donostia
Garibai, 8
943 420 259-943 430 947

Tolosa
Rondilla, 11
943 670 615-943 671 149

Arteka

ESKULANAK

Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577

irakurri entzun Ikusi



T
Juanjo Ollasagarre


Geuk gidatzen dugu geure bizitza? Galdera unibertsal hau dago "T" eleberriarren oinarrian. Juanjo Ollasagarrek, galdera honi erantzun nahi dio, baina Euskal Herriko. Nobelako protagonista Teresada: Tragediari buruzko eskoletara joaten da unibertsitatean, eta aldi berean, minbizia duen bere aitaren tragedia bizi du.

The Photographer
Philip Glass

Philip glass musika minimalista egiten duen konposatzaile estatubatuarra da eta bere lan bikain askoren artean dago "The Photographer" (1982). Izenburuko argazkilaria Eadweard Muybridge (1830-1904) da. Mugimenduaren argazkilaritzaren aitzindaria izan zen, apustu bat abiapuntua izan zelarik: zaldi batek galopeen doala momenturen batean ba ote ditu lau hankak airean? Berak baietz demostratu zuen eta animalia eta gizakien mugimenduaren argazkilaritza sortu zuen. Esperimentu horiek garatzen ari zela bere emazteak maitale bat zuela jabetu zen eta gizon hori erail zuen. Bere bizitzaren pasarte horretan oinarritzen da "The Photographer".

El secreto de sus ojos
Juan Jose Campanella

Donostiako Zinemaldian urrezko maskorra irabazteko hautagaien artean jarri zuen ikusleagoak. Hala ere, film zoragarri eta hunkigarria da Juan Jose Campanellarena. Benjamin protagonistak, bortxatua izan den emakume baten istorioa ikerkuko du. Biktimaren senarrari lagunduz, ez du etsiko erruduna aurkitu arte.



Urriaren 2tik 16ra arteko hitzordduak

Erakusketak

Aranburu jauregia



- Urriaren 31ra arte: Iñigo Arto-lagirreraren pintura erakusketa.
- Urriaren 16tik aurrera: Natxo Barberenaren margoak ikusgai.

Musika

Bonberenea

- Urriak 2: R eta Vicepresidentes taldeen emanaldia. 22:30.



- Urriak 3: Lain eta Funtastic Planet zuzenean. 22:30.
- Urriak 9: Sorkun (Akustikoa). 22:30.
- Urriak 10: Lauroba eta Malenkonia. 22:30.



- Urriak 16: Lo reta Sei urte. 22:30.



Gainditzen jardunaldiak



Leidor

- Urriak 9-10: Kultura gorraren jardunaldiak. Hainbat eximen izango dira.

Ikuskizunak

Leidor

- Urriak 17: Cocidito madrileño II antzezlan. 20:30.



Ugarteko festak

- Urriak 2: 20:30; kanpai jotze eta suziariak. 21:00; herri afaria. Ondoren trikitixa Itzel taldearekin. Atsedendian Toka txapelketa.

- Urriak 3: 11:00; gaztetxoan pilota partiduak. 12:30etatik 14:00etara; umeentzako jolas parkea. Arratsaldean zaldi ibilaldiak Ugarten zehar. Ondoren, txokolatea bizkotxoarekin.



- Urriak 4: 16:00; Ugarteko X. Mus Txapelketa. 21:00; Zahagiardea. 22:30; Ansorregi eta Larrañagaren trikitixa emanaldia. Atsedendian ikuskizun bitxia.



Irurako jaiak



- Urriak 2: 19:00; kalejira buruhandi eta erraldoiekin. Ondoren txistor-jatea Share elkarrean. 22:30; play back jaialdia plazan edo frontoian. 00:30; La banda del jefe Bigun taldearen emanaldia.

- Urriak 3: 11:00; haur parkea garbiletuko plazan. 13:30; ezkonduen soka dantza plazan. 14:30, bikoteen bazkaria Zaharren Biltokian. 15:30; haru parkea garbiletuko plazan. 18:30; Kuko Truko eta Bolenwaider pailazoen "Taulara" ikuskizuna. 19:30; udaberri dantza taldearen emanaldia plazan. 22:30; kale animazioko ikuskizuna "Les Diablos de Canovilles" taldearekin. 00:00; Erensugeta erretzea. 00:30; dantzaldia trikitzio taldearekin. 06:30; txokolate beroa bizkotxoekin.

Tolosaldean (IKASTN)

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Tolosaldeko Ikaskuntzako Bitartekotza Zerbitzutik Ongi etorri guztioi 2009-2010 ikasturtera.

Ikasturte berriari begira, eskualdeko prestakuntza eskaintza erakargarria ezagutu nahi baduzu, informazio osoa "clik" batean lor dezakezu:

<http://www.ikastn.com>

Zer aurkitu dezakezu webgunean?

- Prestakuntza eskaintza osoaren informazio zabal.
- Prestakuntza erakunde eta elkartei buruzko informazio zabal.
- Bizitza osoan Zeharreko ikaskuntzarekin lotutako albiste, jarduerak eta loturak: eduki anitzekoak.

Izena eman eta jaso abantailak...

- Ikastaroen informazioa zure mugikorrean jasotzeko aukera.
- Prestakuntzarekin lotutako boletín elektronikoa jasotzeko aukera.

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Tornu konbentzionaleko mekanizazioa	2009-10-13	80
Informatika hastapena eta internet	2009-10-13	30
Sendabelarrak, aromaterapia eta elikagaien terapia	2009-10-19	10
Saltoki txikiei zuzendutako aplikazio informatikoak	2009-10-26	40
Arrisku handiko elikagaien manipulatzaila txartela	2009ko urria	6
Mendekotasuna duten pertsona nagusiak zaintzeko ikastaroa.	2009-11-17	12

Hobeto zaintzeko trebetasunak eta jarrerak.

Goardiako farmaziak

Ostirala, 2

Azpiroz L.
Amaroz 9
Tolosa

Larunbata, 3

Santamaria I.
(Nafarroa etorb.2)
Tolosa

Igandea, 4

Olarreaga J.
(Korreo kalea, 2)
Tolosa

Astelehena, 5

Iturrioz I.
(Euskal Herria, 3)
Ibarra

Astearte, 6

Olarreaga M.
(Martin J. Iraola, 10)
Tolosa

Asteazkena, 7

Echeveste Jesus M.
(Gernikako arbola, 3)
Tolosa

Osteguna, 8

Morant R.
(Zaballarreta, 1)
Tolosa

Ostirala, 9

Bronte C.
(Korreo kalea 20)
Tolosa

Larunbata, 10

Tolosa M^a Isabel
(Nagusia, 7)
Tolosa

Igandea, 11

Ugarte M^aT.
Euskal Herria, 46
Ibarra

Astelehena, 12

Santamaria I.
(Nafarroa etorb.2)
Tolosa

Astearte, 13

Olarreaga J.
(Korreo kalea, 2)
Tolosa

Asteazkena, 14

Iturrioz I.
(Euskal Herria, 3)
Ibarra

Osteguna, 15

Morant R.
(Zaballarreta, 1)
Tolosa

Ostirala, 16

Olarreaga M.
(Martin J. Iraola, 10)
Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketza-Abaltzisketa-Albztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(Iarrialdia)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
Medikua	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	Iurreamendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdia, Suhiltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	Ertzantza	943 673 022
Ikaztegieta	Tolosa Gasa	943 675 320
Medikua	Lizartza	
Irura	Medikua	943 682 077
Osasun zentroa	Orendain	
Tolosa	Medikua	943 655 595
Anbulatorioa, Iarriald.	Orexa	
San Esteban, hitzordua	Medikua	943 682 228

Galtzaundi 309
09ko urriak 2

Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313

ARTESANIA
ZUEN TZART
*eskuz esku
arrunta berezi bihurtu!*

BERNIKA, 4 TOLOSA
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET
TEL. 943 650 359

TINDATEGIA

Laskorain kalea • TOLOSA
Tel.: 943 652 618

Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916

Muxutruk

Iana

- Adineko pertsonak edo gaixoak zainduko nituzke. Esperientziaduna eta profesional-tasuna. Karlos, 680 983 527
- Hortz protesikoa eskaintzen da laborategian edo auxiliari lanetan aritzeko. 671 44 66 15

Etxebizitza

- Etxebizitza salgai Izaskun auzoan. 60 m2.. 2 logela, sala, sukalde eta komunarekin. 645 718 536

Salgai

- Legorretan pisu zoragarria salgai: 2 logela, egongela, komuna, sukalde eta igogailua. 2001eko eraikuntza. Argitsua. 218.000 euro. Negoziagarria. 699 806 031
- Artzai txakurra salgai 617 863 669
- Spaniel txakur kumea salgai 678 923 512
- Lander trakorea (32 zaldi) eta Renault Kangoo (60.000 km) salgai 617 863 669
- Espace bat saltzen da egoera oso onean, 2001 urtekoa. 9.000 euro. Telf. 605 717 858
- kangoo bat salgai (70.000 km) Montesa motoa salgai. 617 863 669
- Pottoka kalifikatuak salgai (kumeak egitekoak) Txakurkumeak salgai (pinstxer arrazakoak). 645 703 634
- Haur jaio berri batentzat behar diren gauza gehienak salgai (aulkiak, hamaka, seaska,...). 653 733 675

Horoskopoa

Urriaren 2tik 16ra arteko aurreikuspena



aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Lehen pausua eman duzu baina lehenengo bakarrik izan da. Bide horretan jarraitu beharko duzu arrakasta izan nahi baduzu. Bestela, berriz ere hasierako puntura itzuliko zara.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Biak zarete jenio handikoak. Horregatik eztabaidatzen duzue hainbeste. Agian, eztabaidan hasi aurretik lasai-lasai hitz egiten saiatu beharko zenukete. Egin dezakezue.



sagitarius

Azaroak 23-Abenduak 21

Osasun arazo batzuk tarteko, urduri zaude. Egon lasai, ez da ezer eta. Hori bai, ez daukazu 18 urte txorakerietan ibiltzeko, beraz begiratu zure buruari. Dei atsegin bat jasoko duzu.



tauro

Apirilak 22-Maiatzak 21

Inork gutxi du lanerako zuk adinako gogo eta indarra. Baina besteei laguntzeaz gain, zure buruari ere begiratu beharko zenioke. Lan gehiegi egiteak ordaina izan dezake.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Zure burua bezala, besteak engainatzen ari zara. Nahi duzu, jende aurrean ezetz esan arren. Azkar mugitzen ez bazara ordea, aukerarik gabe geratuko zara. Bizitza gozatzeko da!



capricornius

Martxoak 21-Apirilak 21

Maitasunaren aparretan urtzen ari zara. Udazkeneko hilabete hauek egokiak dira paseo luzeak emateko. Aprobetxatu ezazu, maitasuna hostoak bezala ximurtu eta eror daitezke eta!



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Bigarren gaztealdian zabilzta. Pozak txoratzen zaude, baina kontuz, errealitatea beti nagusitzen da azkenean. Ez al litzateke onena zure burua den bezala onartzea?



libra

Irailak 23-Urriak 22

Zure asteak dira. Inork gutxik esan arren, ingurukoak asko maite zaituzte eta asko estimatzen dute zure irribarrera ikustea. Lan asko eduki arren, saia zaitez atseden hartzen.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Azpikeria eta bekaizkeri ugari duzu inguruan. Aldendu zaitez, bestela zuk amaituko duzu ziprztinduta. Esaerak dioenez bezala, hobe bakarrik lagun txarrekin baino.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Iraila amaitu ordurako, eguneroko martxara ohitua zaude. Baina aste honetan ezusteko batek hautsiko du zure lasaitasuna. Ona izango ote da? Hori zure esku dago.



scorpio

Urriak 23-Azaroak 22

Zergatik niri? Nik ez dut hau merezi... beti horrelakoak esaten ari zara. Aurre egiezu gertatzen zaizkizun gauzei! Hori da berriz ez gertatzeko bide zuzena.



piscis

Martxoak 21-Apirilak 21

Gripena, katarroa, buruko mina... guztiak harrapatzeko aukerak dituzu. Eta badakizu zergatik? Ez zarelako batere zaintzen. Esanda alferrik da gainera. Merezia duzu!



OÑATIBIA

E S T E T I K A

Fotodepilazioa

Emakumezkoa

Gizonetzkoa

A plana

izterondoak +besapeak
+ezpain gaina

Lehen	Orain
163€	80€

hanka
osoak+izterondoak

Lehen	Orain
430€	300€

B plana

hanka osoak+izterondoak
besapeak+ezpain gaina

Lehen	Orain
462€	330€

gorputz-enborra: %10-eko
beherapena. saio progresiboak

1ª	2ª	3ª
250€	225€	182,25€

C plana

Beste gune batzuetako tarifa prezioen %10-eko beherapena

-2009ko azaroaren 30ra bitarteko promozioak
-2009ko azaroaren 30erarte promozioaren prezioak mantenduko dira.
ile guztia kentzeko beharrezkoak diren saioak amaitu arte
-adostutako tratamenduak pertsonalak eta transferiezinak izango dira eta
adostutako lekuetarako bakarrik
-beste guneetarako, aurrekontua kontsultatu.

Pablo Gorosabel, 7 - 20400 Tolosa - Telf. 943 536 971



mantangorriekin

6 DVD
euskaraz

1. Lagundu arraina naiz
2. Heidi 3. berriro mendian
3. Betizu eta Xangaduko misterioa
4. Olentzero eta Subilaren lapurketa
5. Urtemuga festa
6. Prop & Berta



Zinema etxean 4

azaroaren **10**etik aurrera
larunbatetan DVD bat



+
4,90 €

Babeslea:



Aukera ezazu,
BIZI euskaraz
berria

VI. Euskal Kirolaren Eguna

Tolosako Usabal Kiroldedia



Urriak 25
11:00 / 15:00



Nerea Azpiazu Beaskoetxea
0002 3459 8721 3562



www.euskalkirola.com
EKFB
Euskal Kirol Federazioen Batasuna
Antolatzailea

Euskal Federazioen

iharduerak, txapelketak eta erakustaldiak



KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA



EL DIARIO VASCO

